

Lantaldea eratzeko konpromisoa: aurkezpen-saioa



2018-10-17

Rekalde aretoa, Bilbo

10:00-11:30

Etortzekoak ziren 33 pertsonetatik azkenean 27 etorri dira; erakundeen eta herritarren ordezkariak eta adituak izan dira (adituen artean sartzen ditugu konpromisoa sustatu duen taldeko kideak). Guztira, 6 emakume eta 21 gizon izan dira.

10:10. Saioa hasi da.

Eusko Jaurlaritzako odezkarik Luis Petrikorenak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria denak Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera konpromisoa sustatu duen taldeko kidea den aldetik, ongiatorria egin die bildutakoei eta saioa hasteko OGP Euskadiren hautagaitzaren bideoa ipini du. [Esteka:](#)

10:20. 1. konpromisoaren aurkezpena. "Kontuak ematea agintaldiko planei buruz". PPT aurkezpena erabili da honako alderdi hauek azaltzeko:

- OGP Euskadi proiektua; hautagaitza OGP programan sartu ahal izateko orain arte egin den prozesua.
- Proiektuaren faseak, gaurtik bi urte barru amaitu artekoak.
- Konpromisoan biltzen dena; horretarako planari erantsitako konpromiso-fitxa azaldu da.
- Konpromiso-taldea antolatzeko proposamena.
- Taldean parte hartu nahi dutenei posta elektronikoz eskatzeko aukera eskaini zaie: jon-olaizola@euskadi.eus.

10:40. Talde-lana hasi da. Bertaratutako guztiak 4 talde mistotan banatu dira konpromisoari ekarpenak egiteko asmoarekin. Lan hau 11:30etan amaitu da.

ERANSKINA.

SAIOAN IZAN DIREN PERTSONEN EKARPENAK.

1. Konpondu nahi diren arazoak.

“Herritarrek ez dituzte modu berean jasotzen erakundeek karguez jabetzean hartutako konpromisoen betetze mailari buruzko azalpenak. Horren guztiaren ondorioz herritarrek ez dute kudeaketaren egoerari eta ekimen politikoei buruzko informaziorik eta, beraz, zaila dute parte hartzea.

Ez dago Euskadin kontuak emateko euskal estandarrik. Horregatik, udalek, aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak beren formatuak aukeratu dituzte, batzuetan formalegiak, edo, kasurik okerreanean, hautatu dute beren web-orrietan kontu-emate hori erraz ikusteko moduan ez argitaratzea.”

- Azaltzen dena bat etorri behar da adierazleekin. Hala gerta dadin, ezinbestekoa da adierazle gutxi erabiltzea; izan ere, bestela oso zaila da informazioa, oso ugaria dena, eskuratzea eta ulertzea.
- Agintaldi-plan batzuetako ekintzak/konpromisoak ez daude ondo zehaztuta (ez behar bezainbat, behintzat); zehaztasuna falta zaie.
- Erabiltzen den tresna teknologikoa ongi egituratuta egon behar da eta erraza izan behar da.
- Oro har, gauzak zailtzeko joera daukagu, eta hori ez da batere lagungarria herritarrei eta beren agenteei kontuak emateko.
- Planak egiten direnean, teknikarien eta politikarien arteko lankidetzak estimatzea izan behar da.
- Plan bat egiten denean, plangintzan aritzen diren alde guztien itxaropenei erantzun behar zaie. Oro har, legegialdiaren hasieran ez da gogoan edukitzen nolako argazkia nahi den legegialdiaren amaierarako.
- Garrantzitsua da ondo zehaztea nola eman nahi diren kontuak. Aurrekontuaren gauzatze-mailaren arabera egin daiteke, edo proiektuen aurrerapen-graduaren arabera, edo aurrekontuaren emaitzen arabera; nolana ere den, ezinbestekoa da lotura ezartzea ekintza-planaren adierazleekin eta aurrekontuaren artean.
- Nolabaiteko talka edo kontraesana dago agintaldi-planen eta erakundeen dinamikaren artean: agintaldi-planak urte anitzekoak izaten dira eta erakundeek urteko aurrekontuak egiten dituzte.
- Faseak antolatu behar dira; hau da, kontuak emateko proiektuak behetik gora jo behar du, eta erakundeek aukera eman behar die kontu-emate zabalagoak egiteko.
- Orokorrean, herritarrek parte hartzeko modu egokia eratu beharko litzateke; izan ere, herritarrek aukera eduki beharko lukete aholkularitza-kontseiluetan eta antzeko guneetan izan ohi diren gizarte-ordezkariez harago heltzeko.

- Administrazioetan urria da kontuak emateko ohitura.
- Ebaluazio-prozesu gehiegi daude; proiektuen eguneroko ardua duten langile teknikoei adierazle-eskaerak bikoizten zaizkie. Ez dago prozesu integralik.
- Oro har, prozesuak oso analogikoak izaten dira; prozedurak ez dira digitalizatzen.
- Herritarren interesen inguruko ikuspegia eta pertzepzioa txertatu behar dira (zer ez den bete azaltzeko, esate baterako).
- Jakin beharko genuke zer datu eman behar zaion herritarren arteko target bakoitzari.
- Kontuak emateko gehien erabiltzen den kudeaketa-tresna aurrekontua da (aurrekontuaren gauzatze-maila), baina, horrez gainera, administrazioak honako hauen arabera ere eman beharko lituzke kontuak: agintaldi-plana eta plan sektorialak (aurrerapena), produktuak eta zerbitzuak, eta emaitzak (eragina).
- Aurretik: hobeto azaldu behar da zer den “kontuak ematea” (alde batera utzi “errua onartzea” bezalako konnotazioak) >> PEDAGOGIA, bi norabiderekin: herritarrak eta kargu politikoak. Ideia alternatiboak: euskara lagungarria; “kontu ematea” > “demos cuentas”
- Jarraipenaren eta eraginaren adierazleak zehaztu behar dira. Horrenbestez, adierazleak honelakoak izan behar dira:
 - o Elkarrekin adostu / negoziatu / itundu behar dira (hau da, baztertu beharra dago nork bere interesen arabera ezartzea).
 - o Bateragarriak izan beharko lirateke maila bereko administrazio homologoen artean (eskumen-maila berekoak).
- Herritarrei ez zaie zuzen eta garbi azaltzen kudeaketa publikoa.
 - o “Zer egin dugun” edo “zer ez dugun egin”.
 - o Egin dena “zergatik” egin den.
 - o Azalpen arretatsua, herritarrek onar dezaten badagoela beti guzti-guztia ez betetzeko “arriskua”.

2. Konpromisoaren ondorioak.

“Gobernu Programa edo Agintaldiko Plana moduko dokumentua erabiltzeak aukera ematen du helburuen, ekimenen eta horiek garatzeko berariazko jardueren zerrenda zehatza aurkezteko. Horrez gain, erakundeek eta herritarrek elkarrekin garatzen badute, formatu bisual eta irisgarri batean aurkezteari eman beharko zaio lehentasuna.

Konpromisoak berekin dakar agintaldiko planetan argitaratuko den informazioak egitura komuna edukitzea; hau da, egitura berarekin argitaratu behar dira udal txikien, eskualdeko goiburuen, hiriburuen, aldundien zein Eusko Jaurlaritzaren informazioak.

Gainera, parte hartzeko metodologia ere zehaztu behar da, kontu-ematea formatu digitalean zein zuzenean egiteko. Horri esker, gizarte-auditoretzako eredu osoagoa lortuko da.”

- Plangintza. Agintaldi-planak eta plan sektorialak egitea.
- Aurrekontua. Ekonomiaren eta finantzen plangintza.
- Apurka-apurka aplikatu beharko litzateke; dagoeneko badaudenen kontuak ematen hasi behar genuke (agintaldi-planak, plan sektorialak eta plan ekonomiko-finantzarioak).
- GIHeekin nola txertatu pentsatzen hasi beharko genuke.
- Kontuak emateko prozesuan, parte hartzeko oinarriak elkarte sektorialak izatea.
- Eman behar den informazioa kaleratzeko egitura komuna sortzea, eta herritarrek ulertzeko moduko terminoak erabiltzea.
- Administrazioak ez dauka behar beste baliabide.
- Zaila da honako hauek estandarizatzea: planen formatua eta egiturak, informazio-egiturak, jarraipen-adierazleak eta abar.
- Buruzagitza eta ekimen politikorik gabe ez dago kontuak ematerik.
- Agintaldiko planaren inguruko barne-komunikazioa falta da; teknikariek ez dakite haren edukiaren berri, eta arrazoien berri ere ez.
- Administrazioetako langileen artean aldaketaren kudeaketa bultzatu behar da.
- Berariaz kontuak ematen jardungo duten langileak behar dira (zeharkakoak).
- Herritarrekiko harremanak hobetu behar dira (hurbiltasuna).
- Ezinbestekoa da kaleratzen den informazioarekin “tentuz jokatzeari”.
- Informazioa izan behar da:
 - o eraginkorra (ulerterraza, hurbilekoa, soila)
 - o eragingarria (beti heldu behar zaie interesatuta dauden pertsonei).
- Aztertu behar da nola eta non jasotzen duten herritarrek administrazioak kaleratzen duen informazioa. Adibidea: kirol-jarduerari buruzko informazioa “kiroldegiaren / igerilekuaren sarreran”, ez antzokiko atean.
 - o Ikuspegi zuzena.
 - o Eduki egokiak.

3. Nola lagunduko du arazoa konpontzen.

“Kontu-ematea ezartzea, agintaldiko planen bidez eta herritarrek haien jarraipena eta ebaluazioa egiten lagunduz. Horren helburua herritarrek gai publikoetan parte-hartze handiagoa izatea da. Halaber, erantzukizunak partekatu egingo dira, kudeaketa publikoak eta ematen diren proposamen eta balorazioen gehikuntza kualitatiboak zer ekar dezaketen zuzenago jakinez.”

Zabalduko den informazioa estandar bihurtzeak lagundu egingo du lurraldeen eta udalerrien artean konparatzen, eta herritarrek informazio gehiago izango dute parte hartzeko.”

- Eredu / egitura komuna; horrela beste batzuk ere sartuko dira.
- Gutxienekoen inguruko akordio batekin hasi eta baliabide gutxiagoko administrazioei sartzeko aukera eman.
- Proiektuen aurrerapenaz galdetzeko zerbitzua.
- Badago ustea herritar gehiago aritzen direla “azalpenak” eskatzen beste gauza batzuetan baino, adibidez, parte hartzeko aukerez galdetzen.
- Modu bakar batean edukiko du zentzua / funtzionatuko du: etengabean eta luzaroan aplikatzen bada.
- Herritarren “kritikotasuna” piztu / ahalbidetuko du, alde batera utzita norberaren usteak sendotzen dituen informazioa bakarrik bilatzeko joera. Aukera hauek eman behar ditu:
 - o Galderak egitea eta datu objektiboak aurkitzea erantzunetan.
 - o Oreka:
 - Batetik, adierazleen eta estatistiken “egonkortasuna” (behin eta berriro zentzurik gabeko aldaketarik ez).
 - Bestetik, aldaketa arrazoidunak garaiz txertatzea.
 - o Pedagogia sustatuko du.

4. Zergatik balioesten du OGPK konpromiso hau.

“Helburua da mekanismo bat ezartzea erantzukizun politikoa edo funtzio publikoa duten pertsonen eskatzeko beren jarduera publikoari buruzko kontuak eman ditzatela. OGPK hori bultzatzen du.”

- Datuak erkatzeko modua da, hots, tresna egokia informazio sinesgarria emateko eta manipulazioei eta gezurrei aurre egiteko.
- Paradigma-aldaketa dakar:
 - o kudeaketa onaren inguruko ohiko “eskuordetzea / ustekotasuna” (aurkakotasuna ekar dezakeena) alde batera utzi eta
 - o ardura / jakin-nahia nagusitu. Eta bitartekorik gabe, gainera (hedabideak, esaterako).
- Gaur egun, arlo publikoa “geldituta” dagoelako sentsazioa dago, eta “zalantzan” jartzen da.

EKARPEN GEHIGARRIAK:

Atal honetan nahi dituzuen ekarpen gehigarriak egin ahal izango dituzue, bai saioan landu diren gaiez, bai aztertzeko astirik egon ez direnen inguruan. Ekarpinak helbide elektroniko honetara bidal ditzakezue: jon-olaizola@euskadi.eus.

1. Konpondu nahi den arazoa:

2. Konpromisoaren ondorioa:

3. Nola lagunduko du arazoa konpontzen:

4. Zergatik balioesten du OGPK konpromiso hau:

5. Ekintza nagusiak eta lortu nahi diren emaitzak:

- Kontu-ematean eta agintaldi-planetan bete behar diren printzipio eta baldintza orokorrak adostu dira, lurralde-maila eta dimensio guztietara moldatuta; administrazio-maila guztiek hartu dute parte eta herritarren iritzia kontuan eduki dira.
- Agintaldi-planen jarraipenerako mekanismoek bete beharreko baldintza orokorrak adostu dira, gizarte-auditoretza gisa.
- Herritarren parte-hartzearen bidezko auditoretzarako espazioak eta tresnak ezartzeko eskuliburua/gida prestatu da.
- Agintaldi-planaren definizio funtzionala zehaztu da: plataforma irekia (kontuan edukita berriro erabili ahal izatea).
- Komunikazio-gakoak eta aldizkako informazioa argitaratzeko eskema eta formatuak finkatu dira.
- Lagin pilotua ezarri da.
- Lagin pilotua ebaluatu da.

6. Zer egin behar dugu, eta noiz?

7. Helburua lortzeko baliabideak:

8. Nola jakingo dugu ondo ari garela? Nahikoa da planteatzen ari garenarekin?

- “Herritarrekin batera, kontu-emateko eredu eta agintaldiko plana zehaztu dira gida-agiri batean.”
- “Informazio-egitura komuna ezarri da agintaldiko planak edo estrategiak egiteko.”
- “Agenda 2030ean ekintza publikoaren gizarte-eraginaren adierazleak zehaztu dira (ingurumena, generoa, eta abar). Eta lan egin da gazteekin eta emakumeekin.”

9. Nola jakingo dugu gerora balio izan duela? Nahiko dira adierazle horiek?, baten bat gehitu edo kendu behar genuke?

Hona adierazle batzuk:

Ezarpen-maila dela eta. Dokumentua kontu-emateko prozesua abiarazteko erabili duten erakundeen kopurua: 9

Ezarpen-gradua dela eta. Informazio-egitura hau agintaldiko planetan edo estrategietan erabili duten erakundeen kopurua: 9

Gogobetetasun-maila (parte hartzeko eragozpenak dituzten taldeen arabera). Planen berri emateko eta zabaltzeko tresnen balorazioa (1-5): 3

Parte-hartzearen maila. Parte hartzeko / auditoretzako prozesuen balorazioa (1-5): 3 // Kontu-emateko prozesuan parte hartu duten pertsona eragozpendunen ehunekoa (taldearen arabera): % 60

II. ERANSKINA

Erandioko Udalaren ekarpenak.

Urriaren 17ko jardunaldian planaren nondik norakoak entzun ondoren, eta talde-etzabaidaren ondoren, ekarpen hauek egin nahiko genituzke:

- Gure ustez, oso garrantzitsua da formatuak adostea. Gidalerro batzuk behar dira, bai, baina batez ere malgutasuna behar da, bai EJK bai gurea bezalako udal batek aplikatu ahal izan ditzan. Guk ikusi-ikasitza dugunez, beste atal bat ere behar da, agintaldian zehar egin diren baina edozein motibo dela-eta idazketa-fasetik kanpo geratu diren ekintzetarako, Donostiako Udalean egin duten moduan.
- Beste gauza bat: OGPE Euskadi proiektura banaka atxikitze aukera ere interesgarria da gure iritziz. Ondo irizten diogu Eudel ere proiektu honetan egoteari, baina kontuz, plaza handi horretan urtuta gera gaitzke. Gure asmoa da barrutik ahalduntzea, OGP sasoiko jartzea eta, batez ere, esperientziak elkarbanatzeko kanalak sortzea.
 - Uste dugu honek izan behar duela aginte-plana egiteko prozesua:
 - o udal-hauteskundeak egin ondoren, gobernu osatzen da;
 - o talde politiko-tekniko bat osatzen da, eta zirraborroari ekiten dio, gainerako ordezkariekin koordinaturik;
 - o arduradun bakoitzak bere lerro nagusiak idatziz jasota uzten ditu, agintaldian garatzeko;
 - o hor, esparru bakoitzak herritarren artean kontraste-lan bat egiteko aukera/betebeharra jasotzea nahiko genuke (arlokako foroak, preskripzio-egileak, aditu-taldeak...), hartara, zirraborroko ekintzei zilegitasuna emateko eta, gero, azken agirira lekualdatzeko.
 - o Aginte-planaren azken definizioa, aurretiazko gogoetak eta herritarren ekarpenak eta guzti.
- Bi protokolo sortzea; bata, planaren fase guztien berri emateko (aurkezpena, garapena, agintaldiaren amaiera); eta, bestea, plataforma mantentzeko, itoaldirik egon ez dadin. Bi protokoloek software bakar eta sinple bat eduki behar dute.
- Egia da aginte-plana legegaldi hasieran diseinatzen dela (kontuz zenbat denbora hartzen dugun diseinu-lan horietan, ez gaitzezen luzatu), baina, gure ustez, agiri bizia da, eta agintaldian zehar aldatu egingo da. Hortaz, denontzako moduko formatuak eta abar diseinatzeaz gainera, interesgarria litzateke, agian, aldian-aldian iterazioak egitea eta horixe izatea metodologiaren oinarria, hartara:
 - o aginte-planaren garapenari buruzko gogoetak eragiteko,
 - o agiria berritzeko,
 - o herritarren interesak ekintza jakin batzuetara bideratzeko,

Gure ekarpenok zuen interesekoak izango direlakoan, agur bero bat.